

DIRU - SARRERAK

Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Mobilerako aplikazio berri bat sortuko dugu eta bertan zure datuak sartu beharko zenituzke. Aplikazio horretan, izena ematen duzunean, txartel bat sortzen dizu (txartel horrek 5€ balioko du, behin txartela eginda ez duzu inoiz ere txartel hori berrirori ordaindu behar, lehenengo egunean bakarrik bizikleten alokairuetako sozioa egiteko). Txartel horrek eskaner bat du eta bizikleta behar duzunean, txartela erakutsi eta bizikleta eskuragarri edukiko duzu. Txartelean, dirua sartzen joan ahal zara erosoagoa izateko. Txartela ez baduzu, bizikletak dauden lekura joan beharko zara mobilarekin eta datu batzuk sartuta, bizikleta eskuragarri edukiko duzu. Bizikletek, bateria bat daukate eta zenbat denbora hartzen duzun arabera, kantitate bat ordaindu beharko duzu.

Zenbat ordaindu behar den (txartelarekin edo mobilarekin):

ORDUA	DIRUA
1 ordu	2€
2 ordu	4€
3 ordu	5€
5 ordu	8€
Egun osorako	12€
Bonusa hilabete baterako	25€
Hiruhilabeteko Bonusa	63€

(Zentzuz eta zuhur definitzea zeintzuk diren proiektuaren diru-sarrera nagusiak, proiektuaren diru-sarrera bakoitzaren partaidetzaren portzentajea zenbatekoa izango den haztatuz. Zuen proiektuak hasieran inbertsio handia behar izango balu, zuhurtziaz zenbatetsi behar duzue zeintzuk izango diren hasierako inbertsio horretara bideratutako diru-sarrerak eskuratzeko bideak.)

Hauek izango dira gure diru-sarrerak:

- Diputazioara joango gara gure enpresa kontratatzeko eta haiek diru laguntza bat emateko. Gure enpresa pribatua da, baina zerbitzua publikoa izango da. Udaletxeak diru laguntzak emango dizkigu Durangaldeari zerbitzu bat eskaintzeko eta batez ere gure ingurumena ez kontaminatzeko. (80.000€ proiektua hasteko).
- Gainera, bizikletak Cafes Baque eta Gocotour autobus enpreseen publizitatea eramango dute eta hauek guri ordainduko digute haien enpresaren publizitatea egiteagatik. (1000€ enpresa bakoitza urtero)

- San Jose Jesuitak eskolarekin, Nevers ikastolarekin, San Antonio- Santa Rita eskolarekin eta Landako eskolarekin txangoak egiteko tratua egingo dugu. Txangoak bi ordukoak izango dira gutxi gora-behera. Taldeak, gehienez 30 pertsonazkoak izango dira, orduan talde bat baino gehiago egin beharko lukete.
 - Talde bakoitzak 50€ orduko ordaindu beharko du.
- Azkenik, bizikletaren eskaintako zerbitzutik lortutako dirua.

